

Ekintzaitzaren **OINARRIZKO GIDA** Balantze hirukoitza




SAREKIN

Bizkaia | ekinean
emprende

 **Bizkaia**

enplegua, gizarte kohesioa eta
berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo,
cohesión social e igualdad



Gure gidaren aurkibidea

Diputatuaren agurra	4
Zertarako gida hau?	8
Zer da Balantze Hirukoitza?	10
Nola erabiltzen da gida hau?	12
Zer informazio aurkituko duzu?	14
Negozio-eredua	16
Merkatu-azterketa	20
Produktua edo Zerbitzua	24
Antolaketa eta pertsonak	28
Finantza-ekonomiko azterketa	32
Forma Juridikoa	36
Marketin Plana	40
Inbertsioa eta Finantzaketa-iturriak	44
Glosarioa	48



Lanean jarraitzen dugu.

Bizkaiak ekintzailletza behar du; ideiak dituzten eta ideia horiek gauzatzeko gaitasuna duten pertsonak behar ditu. Nire ustez, ekintzailletza, gure indar ekonomiko eta sozialaren funtsezko elementua izateaz gainera, gure izaeran ere badago. Baina ezin dugu onartu beren proiektua abian jartzeari bakarrik ekiten dioten pertsona ausarten zeregina izatea.

Horretarako gaude erakundeak eta ekintzailletzaren ekosistemako eragileak: laguntzeko, babesteko, baita finantzatzeko ere. Eta gero eta koordinazio handiagoarekin egiten dugu; horren adierazle da Sarekin ekintzailletza-sarea.



Teresa Laespada

Bizkaiko Ahaldu Nagusiordea.
Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Foru-Diputatua

Ekintzaile bakoitzaren zerbitzura –baita ekintzailletza-eragileenera ere– jartzen ditugun tresna guztien barruan beste bat dugu orain: Balantze Hirukoitzeko Ekintzailletza gida.

Izan ere, proiektuen eta enpresen iraunkortasuna arlo ekonomikotik harago doa, eta kontuan hartu behar ditu balantze soziala eta ingurumen-balantzea ere.

Gida honek lagunduko du ulertzen negozio bat abian jartzeko oinarria dela irabaziak lortzea, jakina, baina oinarria dela, halaber, komunitatean eragin positiboa sortzea.

Balantze hirukoitzaren gako horiei esker, areagotu egingo da proiektu bakoitzaren eta, aldi berean, gizarte osoaren biziraupen-gaitasuna.

Esku artean duzun gida Sarekin sarean partekatutako hausnarketa-prozesu baten emaitza da, bai eta, Bizkaian ekintzailletzaren ekosistema hobetzeko, lankidetzan lan egiten jarraitzen dugula erakusten duen elementua ere.

Lanean jarraitzen dugu.

Zertarako gida hau?


Ekintzailletza-agentea bazara...

...Eta tresna erraz bat behar duzu, erabilgarria (zure lan-prozesuan integratzen dena) eta lehendik dituzunak baino betebeharrak gehiago eragingo ez dizkizuna, ekintzailletzan Balantze Hirukoitzean pentsatzen laguntzeko.

Gida hau zuretzat da, agente gisa egiten duzun lana osatzen duelako

Pertsona ekintzaileei laguntzeko zure eguneroko lanari Balantze Hirukoitzeko begirada bat gehitzen diolako.

Ekintzaileak jasangarritasunaren eta Balantze Hirukoitzaren inguruan sentibilizatzen lagunduko dizuten zenbait galdera, informazio eta adibide aurkituko dituzu.



Pertsona ekintzailea bazara...

..Eta zure ekintzailletzan lehen urratsak ematen ari bazara, gida honen helburua edozein negozio jasangarria izan daitekeela ulertzen laguntzea da, eta zure negozioaren errentagarritasun ekonomikoari buruz hausnartzen ere lagunduko dizu, bai eta zure interes-taldeei eskaintzen diezun gizarte- eta ingurumen-balioari buruz ere.


Azkenik, gida honek Balantze Hirukoitzaren itzulera modu argian ikusten lagunduko dizu, zurea bezalako enpresen adibideen eta jardunbide egokien bidez.

Zer da Balantze Hirukoitza?

Balantze Hirukoitza funtsezko kontzeptua da ekintzailtzan, eta Enpresen **iraunkortasuna** funtsezko hiru alderditatik neurtzean jartzen du arreta: balantze ekonomikoa, balantze soziala eta ingurumen-balantzea. Iparrorratz honek irabazi ekonomikoak sortzen dituzten negozioak ez ezik, gizartean eta zure ingurune hurbilean eragin positiboa sortzen duten negozioak diseinatzen eta abian jartzen ere laguntzen du. Balantze Hirukoitzak negozioei ematen dien oreka erresilientziaren sinonimoa da, eta horrek iraunkorrago bihurtzen ditu Balantze Hirukoitzeko negozioak.

Balantze ekonomikoa: Lehen zutabe hau zure ekintzailtzaren finantza-bideragarritasunari buruzkoa da. Zure negozioa errentagarria dela eta hazteko eta aurrera egiteko behar diren diru-sarrerak sortzen dituela ziurtatu behar duzu.

Balantze soziala: Bigarren zutabeari dagokionez, kontuan hartu behar da zure ekintzailtzak ekarpen positiboa egin diezaiokeela komunitateari eta, oro har, gizarteari. Gida honetan, lehen urrats horiek eraginkortasunez egiteko tresnak eskainiko dizkizugu.



Jasangarritasunean sartzan dira arlo ekonomikoa, ingurumenekoa eta soziala

Ingurumen-balantzea: Hirugarren zutabea zure ingurune hurbilenarekin lotuta dago. Zure negozioak ingurunean duen inpaktua nola minimizatu dezakeen, karbono-aztarna nola murriztu dezakeen eta baliabideak modu jasangarrian nola erabili ditzakeen hausnartzen laguntzea da proposamena.

Oinarrizko Gida honetan jorratuko dugun Balantze Hirukoitzaren ikuspegia azken urteetan Balantze Hirukoitzeko eta Jasangarritasuneko gaietan sortutako ezagutzan oinarritzen da, SANNAS Balantze Hirukoitza Enpresa Elkartearen eta haren Balantze Hirukoitza Hobetzeko Tresnaren bidez.

Nola erabiltzen da?

Zure ekintzaitzaren unera egokitzen den gida

Gida honek Balantze Hirukoitzak berekin dituen aukeren atea irekitzen dizu.

Ekintzaitza-mota bakoitzera egokitzen ahalegintzen da (eta ez alderantziz).

Ikuspegi kualitatiboa du, izan ere, ekintzaitzak sortze-prozesu betean daude.

Baterako sorkuntza-prozesuan ohartu ginen, oro har, **ekintzaitza-eragileek eta ekintzaileek gutxienez funtsezko zortzi alderdi kontuan dituztela ekintzaitza prozesurako**, askotan modu linealean, baina beste askotan ausaz.

Prozesuan zehar errepikazioak egon ohi dira, betiere ekintzaitza-motaren arabera.

Horregatik, esku artean duzun oinarrizko gida honek **funtsezko zortzi alderdi hauek biltzen ditu:**

Negoio-eredua, merkatu-azterketa, produktua edo zerbitzua, antolaketa eta pertsonak, finantza-ekonomiko azterketa, forma juridikoa, marketin-plana, inbertsioak eta finantzaketa-iturriak. **Eta bakoitzaren Balantze Hirukoitzeko hausnarketa egiten du.**

Gida hau zure ekintzaitza-prozesuan laguntzen dizun **beste laguntza bat** dela ulertu behar duzu, eta ez nahitaez bete behar duzun material bat gisa.

EZ irakurri gida hau modu linealean, eta ez sentitu gida honetan agertzen diren tresna guztiak bete behar dituzula.

Senti zaitez libre gehien interesatzen zaizkizun irizpideetan jauzika ibiltzeko eta eman iezaiozu zeure buruari zure erakundearen funtsezko alderdietan sakontzeko aukera.

Zortzi alderdiak nola erlazionatzen diren ez badakizu, atal bakoitza amaitzean, gaia interesgarria iruditu bazaizu irakurtzen jarraitu ahal izango dituzun atalak adieraziko dizkizugu.

Nola erabiltzen da?

Zer informazio aurkituko duzu alderdi bakoitzean?

Balantze Hirukoitza alderdi honetan txertatuz zer lortu nahi den ulertzen lagunduko dizu galdera honek.

Alderdi horretan Balantze Hirukoitza aplikatzeko lehen urratsak egiten lagunduko dizuten zenbait tip eta aholku.

Orrian lantzen den gaia

Alderdiari eta Balantze Hirukoitzean duen garrantziari buruzko sarrera

Gai honetan gehiago sakondu nahi baduzu, hemen duzu gomendatutako bibliografia.

Negozio-eredua

Deskribatu al dezakezu erraz ulertzeko moduan zein den zure negozioaren asmoa?

Zure negozioak inguruko pertsonengan eta ingurune hurbilenean sortzen duen inpaktu ekonomikoa, ingurumenekoa eta soziala neurtzea eta hobetzea da Balantze Hirukoitzaren helburua.

Inpaktua hobetzeko oso formula erraza "Asmoa"ren bidez egitea da. Motor ahaltsua da, eta zure produktuak edo zerbitzuak definitzen ez ezik, zure prozesuetan jarduerak sartzen ere lagun diezazukete, inpaktu positiboa sor dezaten.

Hasteko ideiak

Oraindik ez baduzu zure negozioaren helburua, hori izan behariko litzateke lehen urratsa. Hona hemen zure negozioaren helburua finkatzen lagunduko dizuten galdera batzuk: Zein da zure eragiketen atzean dagoen arrazioa? Zergatik sortu zen zure negozioa? Dirua irabazteki harago, zer eragin lortu nahi duzu?

Helburua finkatzeko beste aukera bat zure negozioaren ikuskeraren eta misioaren gainetik dagoen kontakizuna erakitzzea da.

Ez dago helburu handiegirik zure negozioarentzat. Gogoratu enpresa bakar batek egin duela bere inguruko pertsonen bizikaltzea hobetsi, baina beste enpresa batzuekin elkarlan daitzekela helburu hori lortzeko lan egiteko.

Informazio gehiago

Ebook Helburuaren ekonomia madrid.impacthub.net/landings/ta-economia-def-proposito/

NBERen mundu-ituneko enpresa-jasangarritasunaren 10 helburuak pactomundial.org/que-puedes-hacer-tu/diez-principios/

Adibideak

Lantegi Batuak
"Gure bezeroen premia desgatasuna duten pertsonentzako aukera bihurtzen ditugu". lantegibatuak.eus/few/

Auara
"Uste dugu elkarrekin pobrezia-eragin handienekin amaitu dezakegula, hau da, 700 milioi pertsonari baino gehiagori eragiten dien edateko uraren faltarekin". auara.org/

Erreferentzia
h4c3r ekintzailetzaren Deustu ereduak drive.google.com/file/d/1P-n3eWxsbC3moEtUkImxizF1Q520k01/view?pli=1

Lotutako gaiak
Produktua edo zerbitzua. 24. or.
Pertsonak eta Erakundeak. 28. or.
Inbertsioa eta Finantzaketa-iturriak 44. or.

Enpresa horiek Balantze Hirukoitza txertatu dute arlo horretan, eta inspirazio gisa balioko dizute.

Erakunde horiek hobetzen lagundu ahal izango dizute alderdi horretan.

Jogoan izan gida honek ez duela irakurketa linealik. Hauek dira gaiari lotutako alderdiak.

Negozio-eredua

Deskriba al dezakezu erraz ulertzeko moduan zein den zure negozioaren asmoa?



Zure negozioak inguruko pertsonengan eta ingurune hurbilenean sortzen duen inpaktu ekonomikoa, ingurumenekoa eta soziala neurtzea eta hobetzea da Balantze Hirukoitzaren helburua.

Inpaktua hobetzeko oso formula erraza “Asmoa”ren bidez egitea da. Motor ahaltzua da, eta zure produktuak edo zerbitzuak definitzen ez ezik, zure prozesuetan jarduerak sartzen ere lagun diezazukete, inpaktu positiboa sor dezaten.

Hasteko ideiak

Oraindik ez baduzu zure negozioaren helburua, hori izan beharko litzateke lehen urratsa. Hona hemen zure negozioaren* helburua finkatzen lagunduko dizuten galdera batzuk: Zein da zure eragiketen atzean dagoen arrazoia? Zergatik sortu zen zure negozioa?

Dirua irabaztetik harago, zer eragin* lortu nahi duzu?

Helburua finkatzeko beste aukera bat zure negozioaren ikuskeraren eta misioaren gaintik dagoen kontakizuna eraikitzea da.

Ez dago helburu handiegirik zure negozioarentzat. Gogoratu enpresa bakar batek ezin duela bere inguruko pertsonen bizi-kalitatea hobetu, baina beste enpresa batzuekin elkartu daitekeela helburu hori lortzeko lan egiteko.

Informazio gehiago

Ebook Helburuaren ekonomia
madrid.impacthub.net/landings/la-economia-del-proposito/

NBEren mundu-ituneko enpresa-jasangarritasunaren 10 helburuak
pactomundial.org/que-puedes-hacer-tu/diez-principios/



Adibideak

Lantegi Batuak

“Gure bezeroen premiak desgaitasuna duten pertsonentzako aukera bihurtzen ditugu”.
lantegibatuak.eus/eu/

Auara

“Uste dugu elkarrekin pobreziarik handienarekin amaitu dezakegula, hau da, 700 milioi pertsonari baino gehiagori eragiten dien edateko uraren faltarekin”.
auara.org/

Erreferentzia

h4c3r ekintzailetzaren Deustu eredua
drive.google.com/file/d/1P-n3eWxcBC3moEtIKtmxizFtTq52Ok01/view?pli=1

Lotutako gaiak

Produktua edo zerbitzua. 24. or.
Pertsonak eta Erakundeak. 28. or.
Inbertsioa eta Finantzaketa-iturriak 44. or.




Negozio-eredua

Laguntza-tresna: zuhaitz estrategikoa



Idatzi "Zertarako" jarri duzun
martxoan zure ekintzailletza
hemen (inspiratu piecka bat)



Idatzi zein den zure
"balio-proposamena" hemen

Idatzi zeintzuk diren zure
"motivazioak" ekintzailletza hau
(eta ez beste bat) abian jartzeko.

Tresna hau Zuhaitz Estrategikoaren egokitzapen bat da,
PRAXXIS eta rrebrandek garatutako diseinu estrategikoko
tresna bat.

Merkatu-azterketa

Zer pertzepzio dute zure bezeroek eta hornitzaileek jasangarritasunari buruz?



Balantze Hirukoitzaren ikuspegiarekin egindako merkatu-azterketa batek informazio baliotsua eman dezake negozio-aukerak identifikatzeko, zure interes-taldeen arteko harreman etikoak sustatzeko, zure markaren ospea indartzeko eta zure negozioaren hazkunde jasangarria eta arduratsua bultzatuko duten erabaki estrategikoak hartzeko.

Hasteko ideiak

Lehenengo urratsa zure bezeroek, hornitzaileek eta lehiakideek jasangarritasunarekin zer harreman duten jakitea da, gero zure negozioaren posizionamendua erabakitzeko.

Harreman hori ezagutzeko modurik errazena zure bezero potentzialak elkarrizketatzea da. Eskuragarri al dituzue erreferentzia izan daitezkeen beste produktu edo zerbitzu jasangarri batzuk?

Horrek lagunduko dizu zure helburua zure zerbitzuak eskainiko dizkiezun pertsonen premiekin uztartzen.

Beste formula erraz bat zure inguruan ezarritako erreferentziak bilatzea eta haien Balantze Hirukoitzeko jardunbide egokiak imitatzen hastea da. Gaur egun merkatuan dauden eta zure helburu bera partekatzen duten zein enpresak eskaini liezazukete laguntza eta etorkizunean bientzat onuragarria izango den lankidetzaz ezarri?

Informazio gehiago

Ekintzaitzaren Euskal Behatokia
eeb-ove.eus/hasiera/

Lehiakortasunerako Euskal Institutuaren eskualdeko lehiakortasun jasangarrirako ikerketa eraldatzaileko laborategiak

orquestra.deusto.es/eu/ikerketa/lurralde-lehiakortasunari-lotutako-ikerketa-labs



Adibideak

Bizi Slow

“Zaindu zeure burua eta ingurunea”.

Filosofia ekoiraunkorra duten produktuak.

bizislow.com/



Erreferentziak

Contraluz

“Ad-hoc ikerketa egiten dugu merkatu berrietarako edo merkatuak sendotzeko, bai eta ikerketa soziala ere arlo gehienetan”.

contraluzinvestigacion.es/



HERES Social

“Ebaluaziorako eta inpaktudun komunikaziorako ikerketak egiten ditugu, bai eta gizartean arduratsua diren enpresei buruzkoak ere”.

Berrikuntza sozialeko aholkularitza estrategikoa.

heressocial.eu/



Lotutako gaiak

Finantza azterketa ekonomikoa. 32. or.

Marketin Plana. 40. or.

Merkatu-azterketa

Laguntza-tresna: Elkarrizketa Kualitatiboa

1. Elkarrizketaren aurretiki:

Idatzi hemen elkarrizketatu nahi dituzun pertsonen buruz jakin behar dituzun galderak



Zer dakizu gaiari buruz?

Nori buruz jakin behar duzu? (bezeroak, enpresa hornitzaileak, aliantzak...)

2. Elkarrizketaren ondoren:

Zertaz hartu zara?

Zer ez zenuen espero?

Zer jakitea falta izan zitzaizun?

Ezagutu duzunari buruz, ba al duzu zalantzarik?

Komenigarritzat jotzen dituzun elkarrizketak egin ondoren, aztertu denak batera, eta definitu zure interes-taldeen jasagarritasunari buruz duten pertzepzioa. Jarraian, zuztasunetan oinarritutako erabakiak hartu ahal izango dituzu, eta ez hipotesietan oinarritutakoak.

Tresna hau Lean Survey Canvas-en egokitzapen bat da.

Produktua edo zerbitzua

Ba al dakizu zer eragin duen zure produktuak edo zerbitzuak kontsumitzaileengan eta haien ingurunean?



Produktuak edo zerbitzuak (P&Z) zure helburua lortzeko hiru bide nagusietako bat dira, sargaiak erosteko prozesuarekin eta zure enpresako pertsonen kudeaketarekin batera. Negozio askok gizartean beren kabuz inpaktu positiboa eragiten duten P&Z dituzte, bai pertsonen bizi-kalitatea hobetzen dutelako, ekologikoak direlako edo hondakinetatik abiatuta eraikitzen direlako.

Baina ez kezkatu hori ez bada zure kasua! Balantze Hirukoitza etengabeko hobekuntzako prozesua da. Bereziki jasangarria ez den P&Z bat eskaintzea pentsatzen ari bazara, berritu! eta ekoizpen-prozesua hobetzen saiatu, adibidez, ahalik eta hondakin edo energia gutxien sortzeko, edo erosi zure sargaiak tokiko hornitzaileei.

Hasteko ideiak

Hasteko, ideia ona da material biodegradagarriak, birziklatuak edo erraz birziklatzeko moduko sintetikoak erabiltzea zure produktuak enbalatzeko eta bidaltzeko. Paper birziklatuaz eta ehun organikoaz ari gara, besteak beste.

Zabaldu zure bezeroen premiei buruzko ezagutza-maila, zure produktu edo zerbitzuei buruzko feedback prozesuei eta inkestei esker.

Ba al duzu bidezko prezio-politikarik* zure negozioan? Idatzi prezio-politika argi eta zehatz bat, zure produktuen edo zerbitzuen prezioak arautuko dituzten printzipioak hartzen dituen.

Informazio gehiago

Basque Ecodesign Center

basqueecodesigncenter.net/Default.aspx?IdMenu=20552758-7739-4933-B86F-8A063BB65ABC&Idioma=eu-ES

Bidezko Merkataritzaren Estatuko koordinatzailea

comerciojusto.org/



Adibideak

Basq

Zapatila beganoak, Espainian eskuz eginak, birziklatutako produktuekin.

basqcompany.com/es/pages/manifesto-history



Nahiarte

Adimen edo adimen urritasuna duten pertsonentzako sormen artistikorako gunea.

nahiarate.org/



Hoy es el día

Diseinu grafiko jasangarriko zerbitzuak .
hoyeseldia.es/



Lotutako gaiak

Negozio-eredua. 16 or.

Marketin Plana. 40. or.

Produktua edo zerbitzua

Laguntza-tresna: Balantze Hirukoitzaren Balio-proposamena



1. Deskribatu esaldi batean zure produktua edo zerbitzua erabiltzen duen pertsona

2. Jarri hemen eskaintzen duzun produktua edo zerbitzua eta, ondoren, erantzun galdera hauet:

A. Zein da bere balio soziala?


B. Zein da bere ingurumen-balioa?

C. Nolakoa da kalitatearen eta prezioaren arteko erlazioa?

Balantze Hirukoitzaren balio-proposamena. Luis Madridek diseinatu.
Elke Den Ouden Value Framework ereduaren egokitzapena,
Innovation Design 2012.

Antolaketa eta pertsonak

Nola jakingo duzu zure lantaldeak ongizatea duen?



Baliteke hori izatea zure negozioaren etorkizunari buruzko beste galdera bat; izan ere, gaur egun, agian ez duzu langileak kontratatzeko asmorik, baina etorkizuna planifikatzen laguntzea da xedea. “Ongizatea” pertsonen eta haien lantokiaren zaintza dela ulertzen badugu, pertsonen zaintzan zentratzen bazara, zure negozioaren ospea, bezeroen leialtasuna eta talentua erakartzea eta atxikitzea indartzeaz gain, zure ingurune hurbileko edo komunitateko gizartearen eta ingurumenaren jasangarritasunari eta ongizateari ere lagunduko diozu.

Azkenik, atal hau oso ondo pentsatzera animatzen zaitut, Balantze Hirukoitzaren hiru zutabeetako bat baita.

Hasteko ideiak

Lehenengo urratsa introspektzio-ariketa bat egitea da, zure balioak zure ekintzailtzaren balioak izango direla konturatzeko. Komunitatean edo banaka ekin nahi duzu? Zer balio ezarri nahi dituzu zure negozioan?

Bigarren urratsa zure negozioaren inguruan egongo diren pertsonentzako ongizate-plan bat diseinatzea da: langileak, bazkideak, laguntzaileak. Plan horretan, besteak beste, lan-baldintzak, lidergo-motak eta talentua atxikitzeko tresnak sar ditzakezu.

“Pertsonak eta Antolaketa” gogoan izateko orduan oso garrantzitsuak diren beste gai batzuk kontziliazio-politikak, berdintasunekoak eta hainbat kolektibo kontratatze politikak dira.

Informazio gehiago

Tejeredes

Sareko lanaren eta artikulazio kolaboratiboaren inguruko metodologia, erakundeen ardatz nagusia gizakiak direna.

tejeredes.net/tejeredes/prop%C3%B3sito



Adibideak

Emaús

Ekonomia solidarioko enpresetan gizarteratze-arloan lan egiten duen gizarte-izaerako erakundea.

emaus.com/

Top Manta

Bartzelonako manteroen marka sozial eta solidarioa.

topmanta.store/pages/sobre-nosotros

Erreferentzia

Urbegi

Pertsonak beren helburuarekin uztartzen ditugu.

urbegi.com/urbegi/

Ekinbarri

Pertsonen parte-hartzean oinarritutako enpresa-estilo baten garapena bultzatzen dugu.

ekinbarri.eus/eu/zer-da

Lotutako gaiak


Negozio-eredua. 16. or.

Forma Juridikoa. 36. or.



Antolaketa eta pertsonak

Laguntza-tresna: Animometroa




Horiek erabiltzeak aukera ematen die taldeei banaka eragiten diguten egoera pertsonalekin eta profesionalekin konektatzeko eta enpatizatzeko.

Tresna hau, gutxi gorabehera, hilean behin erabiltzea gomendatzen dizugu.

Laguntzaile bakoitzak post-it bat jarriko du, eta taldeko pertsonak % 0 eta % 100en artean kokatzeko erabiliko dute, animoaren, energiaren eta abarren egoerari dagokionez.


Eskala horri esker, bertaratutakoan animo-egoeraren neurketa indibiduala eta kolektiboa egin daiteke.



Tejeredes.com-en animometroak parte-hartzaileen gogo-aldartean berri ematen du, parte-hartzen duten erakundearekiko.

Finantza-ekonomiko azterketa

Zeintzuk izango dira zure negozioaren alderdi ekonomikoak, ingurumenekoak eta sozialak neurtzeko irizpideak?



Atal honetan, zure negozioaren balantze ekonomikoaren oreka-puntua ezagutzea eta harekin kontsekuentea izatea da garrantzitsuena, eta argi dago jasagarritasun ekonomikoa ekintzaitzaren gakoetako bat dela.

Behin hori lortuta, gizarte- eta ingurumen-azterketa batekin osatzera animatzen zaitugu, eta horrek informazio baliotsua emango dizu etorkizuneko ekintzak abian jartzeko, baliabideen erabilera optimizatzeke eta etorkizunean, zure Balantze Hirukoitza neurtu eta jakinarazteko.

Hasteko ideiak

Zure negozioaren oreka-puntua zein den argi izanda, zure ekintzaitzaren helburua berriro bisitatzeko proposatzen dizugu. Zure Balantze Hirukoitzari benetan zerbaiteko dioten funtsezko sargaiak, jarduerak edo prozesuak detektatzea da asmoa. Horrekin, ingurumen- eta gizarte-inpaktuaren inbentario moduko zerbaiteko eraiki nahi da.

Bigarren urratsa etorkizuneko sargai, jarduera edo prozesu giltzarri horien ordeztar alternatiba jasagarriak ezartzea da, balantze ekonomikoa deskoadratu gabe gizarte- eta ingurumen-balantzea handitzea lortzeko. Hobetzeko aukera bat da, zure negozioa martxan jartzen denean, zure hornitzaileekin, zure taldeko pertsonekin eta konfiantzazko bezeroekin elkartzea eta zure Balantze Hirukoitzeko estrategia eta zure negozioan duen zeregina haiei erakustea.

Informazioa

Dendatu

Ikusi nolako eragina duen zure negozioak zure inguruan.

dendatu.eus/



Adibideak

TREBEKI

Erakundearen azterketa eta kudeaketa, behar diren errentagarritasuna eta likidezia sortzen laguntzeko, lehiakortasuna eta jarraitutasuna bermatzeko funtsezko elementu gisa.

trebeki.info/eu/nor-garen/



Reasen balantze soziala

Ekonomia Sozial eta Solidarioko Sareen Sarearen kontuak emateko tresna.

reas.red/eu/auditoria-balance-social/



SANNASen Balantze Hirukoitza

Tresna irekia eta doakoa da, eta zure Balantze Hirukoitzean ebaluatzen lagunduko dizu.

triplebalancedesannas.com/




Lotutako gaiak

Merkatu-azterketa. 20. or.

Inbertsioa eta Finantzaketa-iturriak. 44. or.

Finantza-ekonomiko azterketa

Laguntza-tresna: Balio-Katea



Zure negozioan arlo ekonomikoa, ingurumenekoa eta soziala neurtzeko zure irizpideak zeuk aukeratu behar dituzenez, tresna honekin inbentario hori "identifikatzen" hastea proposatzen dizugu, etorkizunean optimizatzeko eta hobetzeko.

Zer teknologia-motak kontratatuko dituzu? (Kode Irekia, Creative Commons... etab.)

Nori erosiko dizkiozu sargaiak zure produktuak edo zerbitzuak ekoizteko?

Nola iritsiko da lehengaiak zure enpresara?

Nor kontratatuko duzu zure produktu edo zerbitzuak ekoizten laguntzeko?

Nola iritsiko zaizkio zure produktuak edo zerbitzuak bezeroari?

Nola daukazu pentsatuta zure enpresaren marketina?

Ba al duzu saldu osteko zerbitzurik? Nola kudeatuko duzu?

Zer mozkin ekonomiko, ekologiko eta sozial sortuko dituzu balio-kate osan?

Forma juridikoa

Pentsatu al duzu zure enpresaren forma juridikoak zure Balantze Hirukoitza hobetzen lagun diezazukeela?



Ekintzailtza gehienak autonomoen forma juridikoarekin hasten direla badakigun arren, forma juridiko desberdinek zure negozioaren Balantze Hirukoitza nola bultza lezaketen jakin dezazun nahi dugu. Adibidez, argi badaukazu zure helburua komunitatean eragin positiboa sortzea dela, kooperatibak edo lan-sozietateak tresna ezin hobeak dira horretarako.

Hasteko ideiak

Zure negozioaren forma juridikoak helburuari erantzun behar dio, eta ez alderantziz. Garrantzitsua da lortu nahi duzun eraginari buruz hausnartzea, forma juridikoa aukeratu aurretik. Ekintzailtza komunitatean ari bazara ezartzen, bildu taldea eta galdetu zer inplikazio-maila izango duten ekintzailtzan. "Akordio" batean idazteak azken erabakia hartzen lagunduko dizu. Akordio horrek zure erakundearen Estatutueterako oinarritzat ere balioko du eta, ondoren, honako gai hauek jorratuko dira: funtzioak, erantzukizunak, onura sozialak, erabakiak hartzen parte-hartzea, mozkinak...

Azkenik, gogoratu edozein forma juridiko gai dela sortu nahi duzun eragin positiboa bideratzeko. Forma juridikoak zure eskura dauden tresnak dira, eta proiektu askoz harmonikoagoa eta zure helburuarekin bat datorrena eraikitzen laguntzen dizute.

Informazio gehiago

Konfekoop-en argitalpenak
konfekoop.coop/sala-de-prensa/publicaciones/?lang=eu



Erreferentziak

Asle

Gizartea enpresa-eredu gizatiarrago eta iraunkorrago batetik aldatzeko.

asle.es/eu/



Elkar-Lan S.coop.

Enpresa kooperatiboen sustapena eta enplegu kooperatiboaren sorrera eta garapen ekonomiko eta soziala.

elkarlan.coop/eu/



Worklan

Bilbo Handia eskualdean Gizarte Ekonomiako enpresen eraketa sustatzea.

work-lan.com/p/economia-social.html



Lotutako gaiak

Negozio-eredua. 16 or.

Pertsonak eta Erakundea. 28. or.

Forma juridikoa

Laguntza-tresna:
Zer ekarpen egiten
dio nire negozioaren
jasangarritasunari?



Forma juridikoa: enpresari indibiduala, sozietate zibila, sozietate mugatua, sozietate anonimoa, lan elkartuko lan-sozietatea, etab.

Mota 1

Mota 2

Mota 3

Mota 4

Marketin Plana

Nola komunikatuko dituzu zure negozioaren ingurumen- eta gizarte-balioak?



Zure Balantze Hirukoitza komunikatzeak merkatuan zure helburuarekin koherentea eta zorrotza den negozio gisa posizionatzen lagunduko dizu, eta zure produktu edo zerbitzuen Balantze Hirukoitzaren ezaugarriak nabarmentzeak lehiakideengandik bereizten lagunduko dizu.

Kontsumitzaile arduratsuak segmentatzen eta lotzen eta jasangarritasunarekin hain kezkatuta ez dauden beste erabiltzaile-segmentu batzuk kontzientziatzen ere lagunduko dizu. Azkenik, aurreko ataletan azaldu dugun bezala, zure helburu bera duten beste negozio batzuekin aliantzak egiten lagunduko dizu.

Hasteko ideiak

Zure enpresa-ekimena diseinatu duzula eta orain gizaritari kontatu behar diozula kontuan hartuta, zer jasangarritasun-arloko indargune nabarmenduko zenituzke egin duzun planean?

Oso argi ez badaukazu zein eduki komunikatu, berriro bisita dezakezu zure negozioaren Finantza-ekonomiko azterketa (Balantze Hirukoitza bertsioa).

Gardentasuna oso praktika ona da: erosketena, prozesuena, kostu eta onurena eta abarrena. Eta urrats hori egiteko prest ez bazaude, zure helburuarekin bat datorren publizitate etiko bat egiten has zaitezke.

Halaber, ingurumena eta pertsonak errespetatzen dituzten komunikazio-politikak inplementatzen has zaitezke: paper-kontsumoa murriztea edo, bestela, paper eta tinta ekologikoak erabiltzea dira adibide batzuk.

Informazio gehiago

Save the Marketing

Irabazi-asmorik gabeko elkarte, marketin berri bat guztion onerako hazteko, elkarrekin sortzeko eta kolideratzeko helburua duena.

savethemarketing.com/



Adibideak

Ternua

52 mila jarraitzaile Instagramen.

ternua.com/es/eu/



Real Fooding

1.9 milioi jarraitzaile Instagramen.

realfooding.com/



Errenferentziak

La Mar de Gente

Inpaktu sozialerako komunikazio-agentzia.

lamardegente.net/



Verdes Digitales

Jasangarritasuneko marketin- eta komunikazio-agentzia.

verdesdigitales.com/



Lotutako gaiak

Merkatu-azterketa. 20. or.

Produktua edo zerbitzua 24. or.

Inbertsioa eta Finantzaketa-iturriak. 44. or.

Marketin Plana

Laguntza-tresna: Marketin-Plana



1.

Aztertu zure egungo egoera

- Balantze Hirukoitzeko zure estrategia.
- Zure lorpenak eta desfioak jasangarritasun-arloan.
- Zure xede-publikoa.
- Zure komunikazio-kanalak.

2.

Zehaztu helburuak

- Bezeroek zure enpresaren Balantze Hirukoitzeko strategiari buruz duten ezagutza handitzea?
- Interes-taldeen laguntza bilatu Balantze Hirukoitzeko estrategiarako?
- Zure interes-taldeen portaera praktika jasangarriagoetara aldatu?

3.

Zehaztu xede-publikoa

- Zeintzuk dira zure xede-publikoaren interesak jasangarritasunaren arloan?
- Zein da xede-publikoak jasangarritasunari buruz duen ezagutza-maila?
- Zein da zure xede-publikoaren gainean duzun eragina?

4.

Zehaztu mezua

- Kontuan izan:
- Komunikazio-estrategiaren helburuak.
 - Zure xede-publikoa.
 - Balantze Hirukoitzeko zure estrategia.

5.

Zehaztu komunikazio-kanalak

- Zure web-orria?
- Sare sozialak?
- Informazio-buletinak?
- Ekitaldiak?

6.

Planifikatu komunikazioa

- Sortu jardueren egutegia.
- Esleitu baliabideak.
- Egin emaitzen jarraipena eta ebaluazioa.

7.

Neurtu eta ebaluatu emaitzak

- Xede-publikoak zure Balantze Hirukoitzari buruz duen ezagutza.
- Interes-taldeen laguntza.
- Interes-taldeen portaera-aldaketa praktika jasangarriagoetara.

Inbertsioa eta Finantzaketa-iturriak

Ba al dakizu zure proiektua modu jasangarrian finantzatu dezakezula?



Ekintzailletza askok inbertsio handirik behar ez duten arren, edo “FFF” klasikoak aukeratzen dituzten arren (senide eta lagunen finantzaketa informala), zure negozioa modu jasangarrian finantzatzeko formula posibleak eskaintzen dizkizugu hemen.

Egiaztatuta dago Balantze Hirukoitza DNA duten negozioak askoz erresilienteagoak direla. Hori dela eta, hazi egin da mota horretako enpresak finantzatzen dituen sektorea, banku pribatuek osatzen dutena, baina baita elkarteek edo fundazioek ere, administrazio publikoa barne. Beste modu batean esanda, Balantze Hirukoitzeko negozioa bazara, hazten lagunduko dizuten inpaktu-inbertitzaileak erakar ditzakezu.

Hasteko ideiak

Inbertsioan pentsatzen dugunean, diruarekin lotzen dugu eta, askotan, gure negozioa martxan jartzeko baliabideak, sargaiak, patenteak eta abar behar izaten ditugu. Zure negozioaren helburu argi batek eta Balantze Hirukoitz justifikatu batek balioetan oinarritutako aliantza estrategikoak eraikitzen lagun diezaguke, behar duguna lortzen lagunduko digutenak finantzaketa eskatu beharrik gabe.

Finantzaketarik onena zure produktu edo zerbitzuen salmentan oinarritutakoa dela kontuan hartuta, egia da negozio askok hasierako inbertsioa behar dutela martxan jartzeko. Atal honen helburua zuk banku konbentzionalaren ordezkari finantzaketa-iturrien aukera ezagutzea da, gaur egun merkatuan dagoena. Ondo egituratutako Balantze Hirukoitz batek, kasu askotan, finantzaketa-mota hori eskuratzen lagunduko dizu.

Edozein finantzaketa-prozesutan sartu aurretik, garrantzitsua da kontratuei buruz informatzea.

Erreferentziak

Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarte Kohesioa eta Berdintasun Saila Ekintzailletzako ekimenen sustapena 2024.

bizkaia.eus/eu/gaia-xehetasuna/-/edukia/dt/5546

Seed Capital Mikro. Diputación Foral de Bizkaia
Inpaktu-ekintzailletza: mikropymენტzako mikrokredituak.
seedcapitalbizkaia.mikro.eus/eu/

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi Sustapen Saila.
Bizkaia Crowdfunding.
crowdfundingbizkaia.com/eu/

SPRI Taldea.
Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia.
Laguntzak enpresentzat.
spri.eus/laguntzak/

Fiare Baka etikoa.
Interes gorenaren alde lan egiten duen banku libre, independente eta kooperatiboa: interes kolektiboa.
fiarebancaetica.coop/

Coop 57.
Finantza zerbitzu etiko eta solidarioak.
coop57.coop/eu

Lotutako gaiak

Negozio-eredua. 16. or.
Produktua edo zerbitzua 24. or.



Inbertsioa eta Finantzaketa-iturriak

Laguntza-tresna: Finantzaketa-Plan Jasangarria



1

*Lehaztu zure
jasangarritasun-
helburuak!*

Oraindik egin ez baduzu, 18. orrialdera joan zaitezke, eta zure erakundearen Asmoan lan egin.

2.

*Ikertu
finantzaketa-iturri
jasangarriak*

Hasi aurreko orrialdeko adibide eta erreferentziekin eta, alternatibak behar badituzu, ez izan zalantzarik landa-ikerketa bat egiteko.

3.

*Sortu plan finantzario
jasangarri bat:*

Helburu finantzarioak

Zenbat diru behar duzu zure ekintzailtza finantzatzeko?
Zenbat diru sortzea espero duzu?

Aurrekontua

Zenbat diru gastatuko duzu zure negozioaren arlo bakoitzean?

Finantzaketa-iturriak

Nondik lortuko duzu zure ekintzailtza finantzatzeko dirua?

Glosarioa

Interes Taldeak

Ingelesezko “stakeholder” terminoarekin ere ezagutzen dira, eta enpresa baten jardueretan, eragiketetan eta emaitzetan interesa, eragina edo inpaktua duten gizabanakoak, taldeak, erakundeak edo entitateak dira.

Inpaktua

“Inpaktua” gure ekintzek eta erabakiek planetan, pertsonengan eta ekonomian nola eragiten duten adierazten du, eta eragin horren kudeaketa egokia funtsezkoa da etorkizun jasangarriago baterantz aurrera egiteko.

Sargaiak

“Sargaiak” ekoizpen-prozesu batean edo zerbitzu bat ematean azken produktu bat lortzeko erabiltzen diren elementuak, materialak, baliabideak edo osagaiak dira.

Sargai horiek funtsezkoak dira jarduera ekonomiko bat gauzatzeko, eta aldatu egin daitezke industriaren, sektorearen eta eragiketaren izaeraren arabera. Sargaiak prozesu batean “sartzen” dena edo sarrera gisa erabiltzen dena dira, eta eraldatu edo konbinatu egiten dira produktu, ondasun edo zerbitzu bat lortzeko.

Bidezko Prezioaren Politika

Enpresa batentzat bidezko prezioen politika bat prezioak finkatzeko estrategia bat da, enpresaren interesak kontsumitzaileen eta merkatuko beste eragile batzuen interesekin orekatzea bilatzen duena, modu etiko eta ekitatiboan. Bidezko prezioen politikaren helburu nagusia da enpresarentzat, bezeroentzat eta, oro har, gizartearentzat zentzuzkoak eta bidezkoak diren prezioak ezartzea.

Balio Proposamena

“Balio Proposamena” funtsezko kontzeptua da marketinaren eta enpresa-estrategiaren esparruan. Enpresa batek bere bezeroei edo xede-publikoari eskaintzen dien proposamen bakar eta bereizgarria da, eta proposamen horrek arazo bat konpontzen duela, behar bat asetzen duela edo bezeroentzat balio esanguratsu bat sortzen duela adierazten du. Funtsean, lehiakideena aukeratu beharrean, bezeroek enpresa baten produktu edo zerbitzu espezifiko bat aukeratzeko arrazoia da balio-proposamena.

Jasangarritasuna

Jasangarritasuna sistema, prozesu edo jarduera bat denboran zehar mantentzeko edo zaintzeko gaitasunari dagokio, beharrezko baliabideak agortu gabe eta jarduten duen ingurumen-, gizarte- edo ekonomia-inguruneari kalte konponezinik eragin gabe.

Beste modu batean esanda, jasangarritasunak egungo premien asetzea baliabideak eta etorkizuneko belaunaldien bizi-kalitatea babestearekin orekatzea eskatzen du.

Jasangarritasuna elkarrekin lotutako hiru zutabetan oinarritzen da: Jasangarritasun ekonomikoa, jasangarritasun soziala eta ingurumen-jasangarritasuna.

Balio erantsia

Ekoizpen-, eraldaketa- edo banaketa-etapa desberdinetatik igaro ahala, produktu edo zerbitzu bati gehitzen zaion balioari dagokio. Ekonomia-arloan, produkzioan erabilitako sargaien balioaren eta azken produktuaren balioaren arteko aldea adierazten du balio erantsiak. Produktua edo zerbitzua saltzeko prezioari sargaien (materialak, eskulana, zerbitzuak, etab.) kostua kenduta kalkulatu da.



“Balantze Hirukoitzeko Ekintzaitzaren Oinarrizko Gida” hau Creative Commons Reconocimiento- Compartir Igual 4.0 Internacional License lizentziarekin erregistratuta dago eta, by Sannas, Sarekinekin kodiseinatua.

Informazio gehiago nahi izanez gero jarri harremanetan info@sarekin.eus posta elektronikoaren bidez.

Gida digitala www.sarekin.eus web orrialdean deskarga dezakezu.

Ilustrazioak Lluisa Iborrarenak dira, Attribution 3 lizentziarekin. 0 Unported (CC BY 3 . 0)





SARE*e***KIN**

Bizkaia | ekinean
emprende

 **Bizkaia**

enplegua, gizarte kohesioa eta
berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo,
cohesión social e igualdad